

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko ekaina | 010. zenbakia | 1,50€



MUNDUKO ITSASARGIAK

Zelatari erromantikoak

SAMOA | INAZIOTAR BIDEA | SORATXIPI | BERAT ETA GJIROKASTER | KRUGER SHALATI

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruña distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruña distribution & services SLren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 010

2022ko ekaina

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 159.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Jean Paul LEJEUNE

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

bidaiari 010

AURKIBIDEA



26 ITSASARGIAK, ZELATARI ERROMANTIKOAK Munduko kostaldean oraindik milaka dira zutik dirauten itsasargiak. Batzuk itzalita daude, isilik, baina, hala ere, dirdirarik gabe ere ez dute antzinako magia galdu. Eta hortxe daude, zelatari erromantikoen pare, behatoki pribilegiatuetatik mundua ikusteko modu bitxiak eskaintzen.

06 SAMOA Planetako txokorik urrutienetara joan gara: Samoako Estatu Burujabeko uharteetara. Ez da erraza bertara iristea, baina are zailagoa da bertatik alde egitea.



16 INAZIOTAR BIDEA Inazio Loiolakoak erromesaldia egin eta bost mende geroago, gertaera hura gogoratu dugu Loiolatik Manresara bidea eginez.



36 SORATXIPI Malerrekan dago, Kantaury isurialdean, eta Gorostietara lepoa, irteeraren hasiera, erdi bidean. Hegora, Basaburua eta Ultzama bailara.



42 ALBANIAKO ALT XORRAK Kostalde ikusgarria, mendi garaia, barnealdeko herri xarmagarriak... Berat eta Gjirakaster harribitxiak dira.



56 KRUGER SHALATI Hotel berezia da. Batetik, zubi batean zintzilikatuta dagoelako eta, bestetik, trenbide-bagoietan egiten dutelako lo bezeroek.



50 **BERTATIK BERTARA** Photomuseum 54 **EGIN PLANAK!** "Surfing Euskadi"; XVIII. mendeko patatxaren erreplika, kostaldean; Gorbeia inguruko zaldien erakustaldia. 60 **MUNDUAN PASIERAN** Australiako argazkilaritza biurtekoa; Audrey Hepburnen estatua; "Machu Picchu eta Peruko altxorrak"; Maip macrotorax Txorimaloen Azoka; Maien trena; Charlotte Brontë-ren eskuizkribu berezia...



BACH LONG

Munduko kristalezko egiturarik luzeena duen zubi eseki berria

Vietnamek atrakzio turistiko berria inauguratu berri du: kristalezko zorua duen zubi luze bat, oihanez estalitako haitzarte ikusgarri batetik 150 metrora esekita dagoena. Bach Long du izena eta Moc Chau barrutian dago, Son La probintzian.

Zubiak 632 metroko luzera du. Une batean amaierarik ez duela dirudi. Hala diote, behintzat, zubia zeharkatzera ausartu diren gehienek. Hori bai, denek sentitu omen dute hutsunean zintzilik egotearen sentsazio arraro bezain atsegina. Bertigoaren alde erakargarria, nonbait. Batzuek Bach Long alderik alde zeharkatzea lortzen dute, baina beste batzuek, aldiz, abenturaren erdi-erdian daudenean, abiapuntura itzultzea erabakitzen dute.

Alabaina, abentura arrakastaz gainditzen dutenek gainerakoak animatzen dituzte beldurra uxatu eta aurrera jarraitzera. «Behera begiratzea ikaragarria da hasieran, baina konfiantzaz egin behar da aurrera, eta orduan, bai, orduan bikaina da. Merezi du».

Bach Long (herensuge zuria) Son La probintzian dago, lurraldearen ipar-mendebaldean. Mendiaren alde batetik bihurka doa gorantz, bailara ikusgarriaren gainean alderik alde zintzilikatu arte, naturari desafio egin nahi balio bezala.

Zubiaren oinarriak –beira epelez Frantzian egindakoa– 450 pertsona har ditzake aldi berean. Eta dagoeneko hautsi ditu orain arteko markak: munduko kristalezko egiturarik luzeena du, Txinako Guangdongeko zubi esekiak 526 metro baititu. *Nhac Nguyen (AFP)*



SAMOA

Tangaroa jainkoaren lurra







**Planetako txokorik urrutienetako
batean daude Samoako Estatu
Burujabeko uharteak. Ez da erraza
bertara iristea, baina are zailagoa da
bertatik alde egitea sorginduko
zaituen leku zoragarria ezagutu eta
gero.**

Testua eta argazkiak: **Alfons RODRÍGUEZ**

Samoako Estatu Burujabeko hiriburu den Apian lur hartu ostean, bertan nagusi den lozorro sentsazioaren mende erortzen da bat ezinbestean. Egunek aurrera egin eta herrialdea ezagutzen joaten zaren heinean, gainera, lozorro sentsazio hori Apiako kontua soilik ez dela konturatuko zara: Samoako txoko guzti-guztietan aurkituko duzu. Artxipelagoa belusezkoak diruditen hondartza bakartien, jainkoek aleatorioko bota eta il-tzatutako palmondoen, ur kristalinoen eta zeru garbi eta urdinen segida etengabea da. Agian, goizean hodei txikiren bat ikustea irudituko zaizu, baina berehala desegingo dute eguzkiak eta Hegoaldeko Itsasoetako hai-zeak.

Apia hiriburua, egiari zor, kale zabal eta eraikin eta etxe baxuz egindako herri handi bat besterik ez da. Bertan 39.000 lagun bakarrik bizi dira eta ez duzu zailtasunik izango banketxeak, dendak, hotelak eta jatetxeak aurkitzeko. Behin hiriburua atzean utzita, baina, beste kontu bat izango da. Samoa Estatu Burujabea Polinesiako estatu bat da, orain dela 60 urte sortutakoa. Samoako gainontzeko uharteek Ameriketako Estatu Batuen esku jarraitzen dute, Samoa Estatubatuarra izenpean. Bada, Samoako Estatu Burujabeak 203.000 biztanle ditu egun, gehien-gehienak bi uharte nagusitan banatutakoak: Upolu eta Savaii. Horien inguruan beste zenbait uharte txiki ere badaude, adibidez Manono, Apolima eta Aleipata. Samoak soilik 203.000 biztanle baditu ere, diasporako kideak milioi bat inguru dira, gehienak Zeelanda Berrian eta Ameriketako Estatu Batuetan.





Uharteotara heldutako lehen gizakiak Lapita kulturako tribuetako kideak ziren, eta Fiji eta Tongatik heldu ziren, orain dela 3.500 urte inguru. Europarrekin ia ez zuten batere harremanik izan XIX. mendera arte; garai horretan, misiolariek hartu zuten atzerriko komunitate txikia osatzen zuten marinelen eta presoek lekukoa. Samoako sinismen eta profeziek ziotenaren arabera, egunen batean erlijio berri bat uharteotara heltzekoa zen, eta, tokikoek uste sendo hori zutenez, samoarrek ez zuten zalantzarik egin kristautasuna itxarondako dogma berri hori bezala hartzeko orduan.

MERKATURA BISITA Upolu uharte nagusia oso-osorik ezagutzeko modukoa da. Uharteko jardueraren bihotza Apian dago, bi gune nagusitan zehazki: Beach Road kalean, Aggie Grey Hotelaren eta Flea Market merkatuaren artean bereziki, eta erloju-dorrearen inguruetan, Chinatown bezala ezagutzen den inguruan. Merkatu zentrala ere, Fagalei eta Saleufi kaleen artean kokaturikoa, bisitatu beharrekoa da; produktu fresko oso merkeak eta herrialdeko artisautza lan tipikoak aurkituko ditugu bertan.

Kontuan hartu beharreko beste lekuetako bat Vaea mendiaren hegalean dagoen Robert Louis Stevenson idazlearen etxea da. Eskoziarrak bertan igaro zituen azken urteak, eta azkeneko idazlanak ere bertan idatzi zituen. Gaur egun etxea museo bat da, eta Stevenson bertan bizi zen garaiko altzariak, objektuak eta argazkiak gordetzen ditu. Etxearen lorategitik bertatik hasita, pista batek mendiaren gailurreraino eramaten du; bertan dago Stevensonaren eta bere emaztearen hilobia. Mendiaren gailurretik inguru guztiaren ikuspegi bikainak ere izango ditugu.

Belusezkoak diruditen hondartza bakartien, jainkoek aleatorioki bota eta iltzatutako palmondoen, ur kristalinoen eta zeru garbi eta urdinen segida etengabea da artxipelagoa. Egunek aurrera egin eta herrialdea ezagutu ahala, bertan nagusi den lozorro sentsazioaren mende erortzen da bisitaria ezinbestean Samoako txoko guzti-guztietan.



Samoako biztanleak oso abegikorrek dira, beti daude prest bisitariei laguntzeko. Gainera, denbora luzea pasatzen dute etxetik kanpo lanean, jolasten edo paseoan.



Uhartearen zeharkatzen duen errepidearen alboan dago derrigor bisitatu beharreko beste lekuetako bat: munduan dauden Bahá'í tenplu gutxiarik bat. Bisitari guztiak dira ongi etorriak, eta ez da harritzekoa ere, budismoa, kristautasuna, islamismoa, judaismo eta hinduismoa nahasten dituen erlijio benetan bitxia baita bahismoa. Eraikinaren itxura futuristari bistako konnotazio sektarioak atzemango dizkiogun arren, bahismoaren filosofia eta doktrina kontuan hartzeko modukoak dira, gizateriaren, Jainkoren eta profeten batasun eta ulermen absolutuaren alde egiten baitute.

PARADISURA ITZULERA Oro har, uharteetako iparraldeko kostaldeetan zaila izan ohi da igeri egiteko hondartza onak aurkitzea, gunen malkartsuak, olatu izugarriak eta korrante arriskitsuak nagusi baitira. Egoera goitik behera aldatzen da hegoaldeko kostaldeetan; harea zuriko hondartza bikainak aurkituko ditugu, urdin turkesa ia irrealen urekin. Denbora lasai-lasai igarotzeko leku paregabeetako bat Lalomanu herria da, Upoluko hego-ekialdeko muturrean. Ostatu hartzeko lekuri onenak, zalantzarik gabe, itsaso bazterreko fale tradizionalak dira. Uharteetako eraikuntza tradizionalak dira etxola horiek eta lurretik metro bat inguru altxatutako egurrezko plataforma bat izan ohi dute oinarri; bertatik zutabe batzuk altxatzen dira, palmondo orriz egindako teilatua eustea dutenak. Perimetrotroa ixtea edo ez bakoitzaren hautua da, eta horretarako aukera ematen duten pandanus orriekin egindako gortinak izaten dituzte etxolek.

Bidaia hegoaldeko kostaldean zehar jarraituz gero, ingurua herrixka txikiz eta igeri egiteko edo besterik gabe ezer egin gabe lasai-lasai egoteko hon-

**Malinuu
lurmuturrera
iristea planetaren
mendebaldeko
muturrera heltzea
zen; bertan egiten
zuen “salto”
denboraren
lerroak, egun
batetik besterako
aldaketa eginez.
Hau da, bertan
hasten zen ekialdea**

dartza bakartiz ziprztinduta dagoela egiaztatuko dugu. Horren adibide da Paradise Beach, Lefaga herrixkan kokatuta dagoen hondartza ederra. Bertan filmatu zen 1951n Gary Cooper aktore ezaguna protagonista duen “Return to Paradise Beach” pelikula. Iparraldera eginez gero, herrixkak gero eta ugariagoak dira; kongregazio eta estilo arkitektoniko ugaritako elizak aurkituko ditugu, baita ibilkera lasai eta patxadatsuko herritarrak ere. Bidean zehar ohikoa da egunean bertan harrapatutako arrainak saltzen ari diren arrantzaleekin topo egitea: kolore guztietako arrezife arrainak, itsas-kiak, itsas sugeak eta bestelako uretako espezieak izaten dituzte salgai. Bien bitartean, emakumeek pandanus orriak erabilia estera ezin ederragoak egiten aritzen dira.

Samoako kultura eta gizarte antolaketa oso lotuta daude Polinesiaiko gai-nontzeko uharteetakoekin. Dantza tradizionalak banaka edo taldean dantzatzen dituzte. Ezagunenetakoa Sa-sa da, taldean eta gongaren erritmoan dantzatzen dena. Suaren dantza ere oso zabalduta dago; tradizioaren arabera, beldurra agertu duten gizonak erre egingo dira dantzatzerakoan. Siva dantza ere asko maite dute samoarrek; adierazpen askeko dantza da.

Uharteotako kulturaren uste zabalduta da Samoa dela Polinesiaiko sorterrria. Munduaren jatorria azaltzeko, berriz, legendak Tangaroa jainkoaren sor-kuntza dela dio; Biblian jasotako genesiaren oso antzeko azalpena ematen dute samoarrek. Matai edo familia buruak gidatutako komunitateetan bizi dira samoarrak. Familia bizitza, oro har, liberalizat jo daiteke. Zaharrek eta buruzagiek guztien errespetua izaten dute. Etxebizitza tradizionaletan, berriz, ez dute murrurik izan ohi, baizik eta palmera edo pandanus orriekin egin-dako gortinak; lurzorua harri-koskorrekin estali ohi dute.

Fono izeneko kontseiluaren bilerak fale-tele tradizionaletan egiten dituzte. Bertan biltzen dira buruzagiak eztabaidatzera. Buruzagitza mota ezberdi-nak dituzte samoarrek, eta tartean dago zeremonia-maisuarena. Hizlari ona izatea ezinbestekoa da zeremonia-maisu izateko eta jantzien eta osagarrien bitartez bereizten da zer maila duten. Buruzagi batek beste bati egindako bisita, berriz, malanga bezala ezagutzen da; bertan opariak egiten dira, baita hitzaldiak eta festa bat ere. Emakume samoarrak aualuma izeneko eraikin tradizionaletan biltzen dira. Emakumeen titulua senarraren arabera da. Aipatzekoa da ere nerabezaroarekin lotuta egin ohi zen tatuaiaren erritua galtzen ari dela gazteen artean; gaur egun soilik batzuek egiten dituzte ta-tuaiak eta ez beti erritu horrekin lotuta. Iraganean, ilea motz eta karearekin dekoratua eraman ohi zuten samoarrek.

SAVAI, EGUN BATETIK BESTERA Iraganean, Savaai uhartera bidaiatzen zenean, gure egutegietako une bitxi bat bizitzeko izan ohi zen, hobe esanda, gure eguneroko ordu zikloekin lotutakoa. Malinuu lurmuturrera iristea pla-netaren mendebaldeko muturrera heltzea zen; bertan egiten zuen “salto” denboraren lerroak, egun batetik besterako aldaketa eginez. Hau da, bertan hasten zen ekialdea, eta, beraz, bertakoa izaten zen planetako azken arratsa. Samoarentzat, baina, Malinuu lurmuturra leku sakratua da, azpimundura sartzeko atea. Polinesiaiko haratago mitikora eramaten gaituen labazko mihia. Kontuak kontu, aipatutako denboraren paradoxa 2012an desagertu zen merkataritza arrazoiak tarteko, hau da, Samoak Ozeano Bareko gainon-

tzeko uharteekin zituen harremanak tarteko. Izan ere, herrialdeak data al daketa ofizialeko lerroaren bestaldera igarotzea erabaki zuen, eta, ordutik, dagoeneko ez dira ez eguneko azkeneko arratsaren ez lehendabiziko egun-sentiaren jabe. Lortu dutena, hori bai, Samoa Estatubatuarretik egun oso batera egotea da. Denbora erlatiboa den zalantzarik ez da...

Savaii uhartea Polinesia osoko bigarren handiena da –inguruotatik oso urruti den Hawaii bakarrik da handiagoa–. Basatiena ere bada. Bertara hel-tzeko modurik onena bi orduko bidaia ederrean Apolima itsasartea zehar-katzea da. Horretarako, ferrya Malifanua herrian hartu behar da, Upolu uharteko mendebaldeko muturrean, Faleolo aireportua eta gero; helmuga, berriz, Salelologa izango da, Savaai uharteko hego-ekialdean.

MAUGAKO LABA ZELAIK Errepide batek uharte osoa inguratzen du, barnealde basati eta malkartsua erdialdean utziz; ohian tropikal sakon eta zeharkaezinak, mendi ikusgarriak, jatorri bolkanikoko kraterrak... dira na-gusi. Uhartean derrigor bisitatu beharreko leku paregabeak daude, horie-tako batean paisaia harrigarria izango dugu zain: Maugako laba zelaiak. Ez dugu zelaiok aurkitzeko zailtasunik izango, errepideak erdi-erditik zehar-katzen baititu. Mauga bisitatzeko beste planeta batera eramaten zaitu, edo historiaurrera, nork daki. Lurzoru beltz-beltz dirdiratsuaren eta bertatik irteten diren zuhaixka berdeen arteko kontrastea izugarria da, eta oraindik bero-bero daudela diruditen formazio apetatsuak ere aurkituko ditugu.

Errepidean aurrera eginda Satoalepa herri ederrera helduko gara, Fagama-loko hezeguneetatik gertu. Bertan kanoa bat alokatu eta istingaditik oste-ratxoa egiteko aukera izango dugu. Norbait Hegoaldeko Itsasoetako kondairazko uharteen bila iritsi bada lurrotaraino, zalantzarik ez inguruo-tan bilatzen ari zen hori aurkituko duela.

Lehen aipatutako Malinuu lurmutur mitikora heldu aurretik, Falealupoko Baso Erreserba bisitatzeko aukera izango dugu. Bertan baniano zuhaitz erraldoiak eta labak sortutako kobak aurkituko ditugu. Behin penintsula bisitatu eta gero, zer hobe Neiafu hondartza bisitatzeko baino, Samoako ede-rrenetakoa baita zalantzarik gabe. Hegoalderago, Taga herrixkan, errepide-tik irteten den pista bat aurkituko dugu; labazko kostaldean haizeak sortutako zulo naturaletara eramango gaitu, Alofagako blowhole ezagune-tara. Egun haizetsuetan –ia guztiak inguruotan–, olatuek kostaldearen aurka talka egitean, ura zulo natural horietatik sartzen da, eta, aire korron-teak lagun, dozenaka metroko altuera hartuta azaleratzen da modu ikus-garri eta gorgarrian. Espektakulu zirraragarria da, eta, behin honaino iritsita, derrigor ikusi beharrekoa.

Ekialderantz jarraituta, Gataivai beste herrixka eder batera helduko gara; bertan, ur-jauzi eran itsasoratzen den erreka bat aurkituko dugu. Uren ar-teko talka basatia da beste behin ere, inguruotan ia guztia bezala. Ez da ha-rritzekoa, Tangaroa zeruaren jainko polinesiarrek lehendabizi sortutako lurra baita honakoa, itsasoa, zerua, oihanak, gizakiak eta planetaren gai-nontzeko leku guztiak baino lehenago sortu ere. Samoan zaudenean, ber-tako uharteak eta norbera besterik ez direla existitzen esan ohi da. Eta, egiari zor, bene-benetan horrela dela dirudi.

GIDA PRAKTIKOA

BISA

Ez da bisarik behar Samoako Estatu Burujabea bisitatzeko. Soil-soilik pasaporte indarrean izatea eta herrialdea uzteko hegazkin txartel baliagarri bat izatea eskatzen da. Gehienez ere 90 egun eman daitezke bertan.

DIRUA

Tala da Samoako dirua. Euro bat hiru tala dira gutxi gorabehera.

ORDU EREMUA

UTC + 13.

HIZKUNTZAK

Samoera eta ingelesa.

KLIMA

Abendu eta martxo artean luzatzen da zikloi denboraldia. Urteko gainontzeko hilabeteetan tenperatura epela da oso; bertako negua uztaile eta irail artean izan ohi dute, eta, uda, abendutik apirilera. Samoa bisitatzeko hilabete onenak maiatzetik urrira artekoak dira; 18 eta 27 gradu arteko tenperaturak aurkituko ditugu.



500 URTE GEROAGO

Inaziotar Bidea

Testua eta argazkiak: **Xabier Bañuelos**

Bidexkaren ertzean ibiltari batek geldiarazi nau: «Barkatu –esan ditnahastu egin zara, mendebalderantz da». Irribarre egin eta era atseginean ezetz esan diot, norabide zuzenean noala. Harrituta, berriro diost: «Baina Santiago harantz geratzen da...».

Berriro ere irribarre egin eta eskua bere sorbalda gainean jarri diot, eta nire makilari begiratu dionean hau erantzun diot: «Baina nik ez daramat bieira konpostelarrik, ni beste santu baten urratsei jarraituz noa, ekialderantz, Mediterraneorantz *ad maiorem Dei gloriam*».





**Erreportajea zabaltzen,
Loiolako santutegiko
kupula. Lerroon
gainen, Arantzazu eta
Loiola. Eskuinean,
Ubola tunela, Urolako
bide berdean
(Aizpurutxo).**





Badira gehiegi irakurri eta beren burua irudi tristeko zaldun ibiltaritzat dutenak. Beste batzuk, ordea, liburuak irakurtzeak sinestun bihurtzen ditu. Alonso Quijanok zalduntza-eleberriak irakurri zituen, zaldun ibiltari bihurtu zen eta bidegabekeriak konpontzera abiatu zen. Inazio Loiolakoak erlijio-liburuak irakurri zituen, Jerusalemera joan zen erromesaldian eta azkenik San jarri zioten bere izenaren aurrean. Cervantesen pertsonaia Mantxako leku batetik abiatu zen, zeinaren izena ez dudan gogoratu nahi; Jesusen Lagundiaren sortzaileak Gipuzkoako leku batetik egin zuen, eta haren izena basilika itzel batek gogorarazten du.

Eta Quijano On Kixote berezko eskubidez izan bazen ere, Iñigo Lopezen bizitzak kutsu sobera kixoteskoa du Jainkoaren zaldun gisa, nahiz eta ardien aurka baino gizon armaden aurka borrokatu zen, bere erraldoiak ez ziren errotak, ortodoxiak baizik, eta bere leialtasun hauskaitza ez zen Dulcinea paregabeari zuzendua, baizik Johan Christoph Handk-ek erretrataturako Pablo III.a aita santu bizardunari baino.

152leko maiatzeko egun batean, Inazio Loiolakoa eriondoa Azpeitira iritsi zen, jaio zen dorretxera. Oinaztar leinukoa, Iruñeko zitadelaren defentsan zauritu zuten, Nafarroako Enrike II.aren tropen aurkako borrokan. Bere gelako hormen artean, irakurtzen igarotzen zituen egunak, eta halako batean Saxoniako Ludolforen eta Jacopo da Varazze-ren lanekin topo egin zuen; alegia, Erdi Aroko best sellerren bi egilerekin; bata Kristoren bizitza hizpide zuena eta bestea santuen bizitza kontatzen zuena.





Orrialde haiek iraultza espirituala piztu zuten ordura arte soldadu izan-dakoarengan, eta bizitza eredugarri horiek guztiak imitatzea erabaki zuen. Ama Birjina eta Haurra gau batean Inazioaren aurrean agertu izanak asko lagundu zuen, eta gertaerak azkenean bokazio berria berretsi zuen. Horrela, gizon mundutarra alde batera utzi, armadurari eta ezpatari uko egin, eta erromes-jantziarekin ordezkatzeari erabaki zuen.

LURRALDE SANTURA Jada sendatuta, 1522ko urtarril eta otsail artean abiatu zen. Ideiak oraindik oso argi izan gabe, Lurralde Santura iritsi nahi zuen, fedegabeak konbertitzera. Martxoaren 2lean Montserratera iritsi zen, eta han bere jantzi militarra zintzilik utzi, eta Manresara abiatu zen. Herri horretan hamar hilabete eman zituen anakoreta gisan, egun Cova de Sant Ignasi izena duen kobazuloan.

Hor eman zien forma bere “Ariketa espiritualei”, eta han erabaki zuen hobe zela taldean lan egitea; Jesusen Lagundia sortzeko hazia ereintzen ari zen. Gauzak apur bat ordenatuago zituela, Bartzelonan ontziratu zen Erromara joateko, eta handik Palestinara.



Aurreko bi orrialdeetan, goian, Sorgiñetxe trikuharria, Arnoko labirinto karstikoa, zikoinak Alfaroko San Miguel kolegiatan eta Calahorrako katedralaren erretaula. Behean, Elizmendi ermita eta Aizkorri-Aratz-Araiako irudia Entziatik ikusita. Lerroon gainean, berri, Monegroak, Lleida eta Manresa.



BIDE BATEN BERRESKURATZEA Erromesaldi hura egin eta bost mende geroago, eta aldareetara igo zutenetik lau mende igarota, gertaera hura gogoratuko dugu, santuak penintsulan oinez egin zuen ibilbide bera eginenez. Inaziotar Bidea da: 655,87 kilometro, antzinako Errege Bidearen trazadurari jarraitzen diotenak eta Eboko Donejakue bidearekin kointziditzen dutenak, baina alderantzizko noranzkoan.

Eta, berezitasun gisa, esan beharra dago, Donejakue bidearen oinarrian kondaira bat baino ez dagoen bitartean, Inaziotar Bidea benetan fisikoki eta espiritualki ibili eta espermentatu zuela protagonistak. Lagundiaren ekimenez sortu zen 2012an eta guztira 27 etapa ditu.

Laburrena Navarrete eta Logroño arteko 13 kilometroak hartzen dituen da, eta luzeena, Cervera eta Igualada artean igarotzen den sei legoa pasatxokoa. Hego Euskal Herrian, Errioxan, Aragoi eta Katalunian zehar igarotzen da, askotariko paisaien erdian; Gipuzkoako haran malkartsuak, Arabako mahatsondoak eta Errioxako, Nafarroako eta Aragoiko estepak, Monegroseko basamortu eremura, Montserrateko gailur hautsiak eta Mare Nostrumen urdinak.

Baina harrigarriena bidea ezohiko noranzkoan egitea da. Ez dira faltako bidaideak, baina harritu aurpegiarekin azkar igarotzen direnetakoak izango dira. Donejakue bidea noranzko “egokian” egiten ari direnak, hain zuzen. Inork ez du ulertuko zergatik goazen kontrako noranzkoan, baldin eta ez bazara gelditzen eta jakin-mina duenari zergatia azaltzen.



**Errioxako lurretan
zeregin
espiritualak baino
zerbait gehiago
egin omen zuen
Iñigok. Naiarako
dukeari emandako
zerbitzuengatiko
soldatak kobratu
zituen, eta, esaten
denez, lehenago
izan zuen alaba bat
alabatzat aitortu
zuen, María
Villareal de Loyola**

Baina gehienek okerreko bidean bagindoaz bezala begiratzen dute; areago, baten batek akatsetik atera nahiko zaitu, eta ez da faltako xelebrea edo ibiltari esnob bat zarela pentsatuko duenik; izan ere, oso jende gutxik ezagutzen du oraindik bide hori. Horrek xarma berezia du; batez ere, Ignaziotar Bideak bere kabuz hegan egiten duen tarteetan, non bakardadeak gogoarentzako, zentzumenentzako eta bihotzarentzako espazioa garbituko duen.

EUSKAL HERRITIK MEDITERRANEORA Gipuzkoaren bihotzean hasiko gara, San Inazoren jaiotetxean, Loiolako santutegiaren ondoan. Jesuiten erreferente nagusia den honetan, barruan gordeta dauden arteak eta historiak bultzada ematen digute bideari ekiteko. Zumarragaraino Urolako Bide Berdean barrena goaz, Izarraitzeko haitzen azpian doan ibai bihurgunetsuaren ertzetik.

Barne Barduliaren idiosinkrasia da, bukolikoa, berdea eta misteriotsua, burdina- eta su-zaporekoa. Handik hurbil, Antiguako ermita dugu zain. Uste denez, harribitxi erromaniko horretan otoitz egin zuen santuak, Brinkola zeharkatu eta Arantzazuko igoerari ekin aurretik.

Arantzazun eskulturak eta arkitekturak naturarekin bat egiten dute, modernitate- eta haustura-garrasi heterodoxo batean, non eta, historialari batzuen esanetan, Loiolakoak kastitate-botoa eman zuen tokian. Gipuzkoa uztar gaude, baina ibilbidearen zati ez bada ere, Iturriotzeko Bentara iritsi gara, Aian, Ernioren magalean. 1535eko apirilean San Inaziok gaua bertan eman zuen, Paristik etxerako bidean.

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ JOAN

Sasoi atseginenak udaberria eta udazkena dira, neguaren gogorra eta udako beroa saihesteko. Zenbat denbora. Hori bidaiaren helburuaren arabera izango da, eta oinez, bizikletaz edo autoz joaten garen. Oinez eta erromes joanda, lauzpabost aste nahikoa dira.

KREDENTZIALAK

Bideko hainbat puntutan jaso beharko ditugu. Euskal Herrian, Loiolako santutegian eta Tuterako Turismo Bulegoan. Zerbitzuak. Donejakue bidea bezain prestatua ez dagoenez, aurretiaz ondo planifikatzea komeni da. Seinaleztapena eskasa da: GR120 Euskal Autonomia Erkidegoan eta gezi laranjak eta bide-seinaleztapena, gainerakoan; Katalunian horiei eguzkiak gehitu dizkiete. Nahiz eta posible den Done Jakue bideko aterpeak eta beste aterpe batzuk erabili, zenbaitetan landetxe edo hotela hartu behar izaten da.

ZIURTAGIRIA

Bost etapan kredentzialetan bost zigilu biltzean jasotzen du erromesak, bai jarraian egin baditu edo ez. Loiolan edota Manresako Turismo Bulegoan jaso daiteke. Gutierrez lerroa (Katalunian) edo Perez lerroa izenak ere.

Arantzazutik Aizkorri-Aratz zeharkatuko dugu Urbiako zelaietan barrena, Araiaiko lautadaren bila. Marutegiko gazteluak oraindik Zirauntzaren iturburu ikusgarria eta Lezeko kobazulo misterioetsua zaintzen ditu. Araia eta Alda artean Aizkomendi eta Sorginetxeko trikuharriak imana izango dira, Entziara eta Katarri eta Arnoko labirinto karstikoetara igo baino lehen.

Elizmendiko ermitara jaitsiko gara –horman sartuta hilarri erromatarrak ditu– eta Harana zeharkatuko dugu Santikurutze Kanpezu ederrerraino. Nafarroako Genevillara iritsiko gara. Gero, Arabako azken etapari aurre egingo diogu, eta Guardian atsedean hartuko dugu, mahatsondoz, gotikoaz, trikuharriz eta Burdin Aroko herrixkaz inguratuta.

Errioxa bost etapatan zeharkatuko dugu. Navarretetik donejakueko lurretan sartuko gara. Bidean zehar beste tenplu askotan egin zuen bezala, Iñigok San Joan Acrekoaren Ospitaleko kaperan otoitz egin zuen. Haren hondarrek nostalgia arraroa sorrarazten digute. Logroñora iritsi gara eta gero Alcanadrera, Calahorratik igaro eta Alfaron bukatzeko, hori guztia katedralen, erromatarren aztarnen, gazteluen eta kolegiaten artean.


Diotenez, Errioxako lurretan zeregin espiritualak baino zerbait gehiago egin zuen Iñigok. Naiarako dukeari, Antonio Manrique de Larari, emandako zerbitzuengatik soldatak kobratu zituen, eta, esaten denez, lehenago izan zuen alaba bat alabatzen aitortu zuen, María Villareal de Loyola izenekoa.

ARAGOI ZAIN DUGU Euskal Herrira sartu gara berriz ere Tuteratik, baina Aragoi hortxe dugu zain. Ateak Gallur eta Ubide Inperiala dira, eta Alagoken dagoen San Pedro eliza mudejarreraino jarraituko dugu, plater nagusira iritsi arte, hots, Zaragozaraino. Fuentes de Ebro igarota, Pina de Ebron geldituko gara haize pixka bat hartzeko, San Salvador komentuko eta Santa Maria elizako horma mudejarren artean; kilometro batzuk aurrerago Monegros begira daukagu.

Monegros oinez zeharkatzeak gure erresistentzia proban jarri du, Bujaralozen hegoaldeko ertza besterik ez bada ere. Torres Solano jauregia, Santiago eliza eta bere gatzaga ederrak ikusteak kontsolatu gaitu. Candanos herritik Fraga iritsiko gara, Aragoiko azken herrira. Han, elizez eta jauregiez gaindi, Erromara ere itzul gaitezke, Villa Fortunatusen hondarrak ikusiz.

KATALUNIAN Kataluniak Lleidan zabaltzen dizkigu ateak, Seu Vellarekin. Palau d'Anglesolaraino iritsi gara, Verdú eta bertako gaztelua ikusi ditugu, baita Cervera ere, estilo barroko eta neoklasikoko unibertsitatea duena. Igualada atzean utzi ondoren, Montserrat eta bere monasterioraino igo gara, ingurune natural zoragarri baten erdian. Dagoeneko irrikitan, gure azken helmugara iritsi gara, Manresara.

Han Sant Ignasi kobak egin digu harrera. Harritzko korridore txiki bat da, alabastrozko erretaula bat du buru, eta eliza barroko eta komentu neoklasiko batek osatutako multzo apartak babesten du. Baina oraindik epilogo geratzen zaigu, Bartzelonatik hurbil gaudenez, barkaezina baita hirira ez iristea. Azken finean, San Inazio bertan ontziratu zen Jerusalemera joateko. Baina hori beste baterako utziko dugu.



Ignaziotar Lurraldearen ondare osoa ezagutzeko kalitate handiko argazkiekin murgildutako esperientzia: Arantzazuko Santutegia, Antioko Ermita, Loiolako Santutegia eta askoz gehiago.

Ezagutu esperientzia:
urolaturismoa.eus | ignaziotarlurraldea360.com





MUNDUKO ITSASARGIAK

Zelatari

erromantikoak

Testua Eli TXAPARTEGI Argazkiak Getty Images

Munduko kostaldean oraindik milaka dira zutik dirauten itsasargiak. Batzuk itzalita daude, isilik, baina dirdirarik gabe ere ez dute antzinako magia galdu. Eta hortxe daude, zelatari erromantikoen pare, behatoki pribilegiatuetatik ikuspegi panoramikoak eta mundua ikusteko modu bitxiak eskaintzen. Munduan sakabanatutakoen artean pare bat dozena bildu ditugu. Aukeraketaren arrazoiak hamaika dira: kolorea, forma, kokapena, historia, dotorezia, indarra, umildadea...



Enoshima (Japonia)

Egitura erabat berezia eta, ondorioz, deigarria du: kristalezko paretei esker, kanpoaldetik barruko eskailera kiribildua ikus daiteke, bertigoa eragiteko moduko behaketa plataformaraino iristen dena. Hala ere, igogailu bat du, bisitaria punturik garaienera eramaten duena; bertatik Sagamiko Badiaren eta Fuji mendiaren ikuspegi ikusgarriaz gozatzeko aukera izango du. 2003an eraiki zen Enoshima uharte txikian.

Kiz Kulezi (Turkia)

“Dontzeilaren dorrea”. Horrela esaten diote turkiarrek gauez Bosforora urre koloreko distirak jaurtitzen dituen faro bitxi honi. Sultan, madarikazio, jauregi eta dontzeilaz osatutako elezahar zahar batez inguratuta dago, belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho, mendeetan zehar biziraun duen legenda: bazen dontzeila bat itsasargian, eta ez beste inon, sentitzen zena babestua. Gaur egun, Kiz Kulezik jatetxe bat du, Bosforo itsasartearen ikuspegi liluragarriak eskaintzen dituen.



Pemaquid (AEB)

Pemaquideko itsasargia gaur egun Bristolen, Maine estatuan, gehien bisitatzen den lekuetako bat da. 1827an zabaldu zen leku benetan pribilegiatua, penintsula baten puntan, Portlandetik 97 kilometrora, iparraldera. Ikuspegi hipnotizatzaileak oparitzen omen dizkie bertaratzen direnei. Gainera, arrokkaren eta uraren konbinazioak isla bitxiak sortzen ditu.



Creac'h (Frantzia)

1863an piztu zen lehen aldiz eta, 1988az geroztik, Itsasargien eta Balizen Museoa dago bertan. Iles du Ponant artxipelagoan –Armorica parke naturalean– kokatuta, “Itsasoaren zaindari” izenez da ezagun. Europar potentzia handiena duen itsasargia da eta munduko handienetakoa: bere argitasuna 60 kilometrora irits daiteke. Mantxako kanalean sartzen diren itsasontziak gidatzen dituen jagole paregabea da.





Capo Testa (Sardinia)

Sardiniako uhartearen iparraldeko muturrean dago, tontor batean, granito-harri ikusgarrien artean. 1845ean hasi zen marinelei laguntzen, Sardinia eta Korsika banatzen dituen Bonifaciu itsasarte arriskutsuan ahalik eta arazo gutxien izan zitzaten.


Santa Marta (Portugal)

Bitxia denez, Cascais-eko irudi erakargarrietakoa bihurtu da. 28 metroko altuera eta marra horizontalak ditu, urdin eta zuriak. Estorileko kostaldeko itsasargien historia biltzen duen museoa du ondoan. Portugaleko lehenak izan ziren Estorilen eraikitako faroak.



Holland Harbor (Kanada)

1872an eraiki bazen ere, gaur egun duen egitura 1907koa da. Hain zuzen ere, horrexegatik, Big Red izenez ezagutzen da, haren aurreko itsasargiaren oroimenez. Esan gabe doa kolore gorria duela ezaugarri nagusi, itsasoaren urdinarekin eta inguruko berdearekin kontrastatzen duen gorri bizi-bizia.





Kermorvan (Bretainia)

“Infernuko jauregia” esaten diote; batetik, bere kokapen estrategikoagatik –itsasoaren erdian– eta, bestetik, barrualdeko luxuagatik. Izan ere, egun oso kotizatuta dauden zurezko altzariak ditu. Itsasertzeko bide bihurgunetsu batetik soilik irits daiteke bertara, oinez eta beti itsasbehera denean. Zalantzarik gabe, Le Conquet-eko itsasargi bitxienetako bat da, eta bi koloretako argiak –gorria eta zuria– igortzen dituen bakarra uhartean.

Hook Head (Irlanda)

Hook lurmuturrean dago, Waterford herritik gertu. Bere siluetak, gerri handi eta marra zuri eta beltzekin, xarma berezia sortzen du eta, gainera, irlandarren artean harrotasun puntu bat ere eragiten du munduko farorik zaharrenetakoa omen delako. Egia izan ala ez, egiaztatuta dago 800 urte daramala funtzionatzen. Antza denez, garai hartan inguruko abadia bateko fraideek gidatzen zituzten itsasontziak gauez suak piztuz.



La Corbiere

Jersey uhartearen hego-mendebaldeko muturrean, uhartetxo ñimiño batean, dago La Corbiere itsasargia, harkaitz txiki baten gainean. Mareak gora egiten duen bakoitzean, begi-bistatik desagertu egiten da bertaratzeko derrigorrez erabili behar den harkaitzeko pasabide estua, lurrarekin lotzen duen bide bakarra. Ingalaterra eta Frantzia arteko itsas zeharbideko zatirik arriskutsuena amaitu zela iragartzen zien dorreak marinel ausartei.



Trinidad (AEB)

Itsasargia bera apala da, baina ingurua, aldiz, ikusgarria, harkaitz malkartsuz osatutako paisaia liluragarritz inguratuta baitago. Kalifornia hegoaldean kokatua, Trinidad hiri txikiaren ikur bilakatu da.

Cape Byron (Australia)

Cape Byronek Australiako punturik ekialdekoena markatzen du. Izen bereko Natura Erreserbaren oinetan altxatzen da, handikiro eta elegante, itsaslabar eta hondartzak uztartzen dituen paraje zoragarrian txertatuta. Herrialdeko itsasargi zaharrena da, eta gaur egun baleen behatoki pribilegiatu gisa erabiltzen da.




Portland Head (AEB)

1790etik dago zutik. Deigarria da, batez ere kokapen berezitasunagatik: Mainen, parke natural zabal batean, oinez deskubritu daitezkeen ehunka hektareaz babestuta. Gainera, faroaren barruan itsas museo bat dago, nabigazioari buruzko hamaika sekretu bitxi gordetzen dituena.



Kullens (Suedia)

1898an eraikia, Suediako garaiena da –80 metro ditu–. Kullenseko erreserba naturaleko muino natural batean dago, herrialde nordikoaren hego-mendebaldean, itsas zirkulazio handia hartzen duen kostaldean. Gaur egun urruneko kontrola erabiltzen du, baina, hala ere, bertan da beti farozaina, premia dagoenean bera arduratzen baita B planak funtziona dezan.



Wittenbergen (Alemania)

Altzairuzko eraikuntzen adibide zaharrenetako bat da. 1900. urtean eraiki zuten Elbeko kostaldean. Gorriz eta zuriz margotutako dorrea du, urtaro-aldaketekin batera urtero kolorez aldatzen dena basoaren eta itsasertzaren artean.



Snæfellsjökull (Islandia)

Gorria da. Eta potoloa. Ezin du itsasargi garaienekin edo estilizatuenekin lehiatu baina, hala ere, xarma berezia du, itxura bitxia. Snæfellsjökull Parke Nazionalaren muturrean kokatua, izen bereko sumendiaren laba itsasargiaren oinetaraino iristen da, eta paisaia erabat erakargarria sortzen du.





Akranes (Islandia)

Dorrearen kolore zuriarekin erabat kontrastatzen du sumendi itxurako inguruak. Egitura angeluzuzen soil eta irmoaren silueta ere deigarria da oso. Bisitak benetan merezi du, faroaren punturik altuenetik lortutako panoramika paregabea baita, amaigabea. Eguraldiak horretarako aukera ematen badu, Reykjavik badia ere ikus daiteke.



Mean Ruz (Bretainia)

Mean Ruzeko itsasargia Ploumanach herritik gertu dago, Bretainiako Côte de Granit Rose-n (Granito Arrosaren kostaldea), Sentier des Douaniers bideko (aduanazainen bidea) harkaitzen artean ezkutatuta. 1907an inauguratutako ibilbidea da, Bretainiako itsasertza zeharkatzea ahalbidetzen duena.



Tourlitis (Grezia)

1897an eraiki zuten Tourlitis uhartetxo harritsuaren gainean, izen bereko uhartean, Zikladen artxipelagoko iparraldekoenean, eta 1990ean berritu zuten. Kokapenak egiten du itsasargia berezi, haitz isolatu batean dagoelako eta harkaitzean zulatutako eskailerak erabili behar direlako bertaratzeko. Ez dago beste modurik.


Cap Des Rosiers (Kanada)

Lawrence ibaiaren bokalera hurbiltzen diren marinelei bidea erakusten die 1858tik. Gainera, ia 35 metroko altuerarekin, Kanadako itsasargi garaienetakoa da. Pasarte harritsu batez inguratuta, tragedia baten mamuez zipriztinduta dago: 1847an, eraiki baino urte batzuk lehenago, Irlandako 400 etorkin hondoratu ziren kostalde honetan. Carrick herritik zetozen mundu berrian etorkizun hobea aurkitu nahian.



St. Mary's (Ingalaterra)

Itsasargia, egun lainotsuetan itxura fantasmagorikoa duena, Whitley Bayko uharte txiki baten erdian kokatuta dago, eta, marea igotzen denean, itsasargia erabat isolatuta gelditzen da, bertaratzeko dagoen bide estu bakarra urpean geratzen baita. Gaur egun itzalita dago, baina bisita daiteke. Eskaileretako 136 mailak igotzen dituenak itsasoaren indarra sentituko du, bat-batean, aurrez aurre. Batez ere, haserre dagoenean.



Hercules dorrea (Espainia)

Coruñaiko kostaldean kokatuta, martxan dagoen munduko itsasargirik zaharrena da eta, gainera, 57 metrorekin, Espainiako hirugarren altuena. Harri zurien artean I. mendeko itsasargi erromatar bat ezkutatzen duela diote historialariek. Bere kokapenari esker, Atlantikoaren ikuspegi txundigarriak eskaintzen ditu. Eta, gainera, inguruetan aire zabaleko Parke Eskultorikoa du, XX. mendeko artisten lan interesgarriak erakusten dituena.



UR ISURIAN JAUZIKA

Soratzipi

Testua eta Argazkiak: **Andoni URBISTONDO**







Kantauriar isurialdea eta mediterraneokoa bi mundu dira. Ezberdinak oso. Udaberrian agerian geratzen da hori GR-12 bidean, Euskal Herriko xendan. Iparrera, Kantauri itsasoak agintzen du, eta lainoz jantzi mendiak. Hegora eguzkia bazterrak berotzen hasia da, eta soroak loratzen. Soratxipi gailurra Malerrekan dago, kantauriar isurialdean, eta Gorostieta lepoa, irteeraren hasiera, erdi bidean. Hegora, Basaburua eta Ultzama ibar dotoreak.

E

uskal Herria askotarikoa, aberatsa, da bere naturan, bere paisaietan. Itsasoa du. 2.000 metrotik gorako hainbat mendi, elurtuak ekaina bitarte. Beste hainbat mendi dotore ere bai, garaieraz apalagoak izanda ere. Basamortu bat dauka hegoan, Bardea, eta gari, gargar, patata eta bestelako soro emankorrak, Arabaz eta Nafarroan. Ur mugatik iparrera, Kantauri itsasoak bere agintea inposatzen du, laino jendea sortuz. Negu

hotzean uraren tenperatura 11-12 graduraino jaisten da, eta apiril-maiatzetan hasten da gorantz, pixkanaka, goia abuztu-irailean jotzeko: 22-23 gradu. Sahara aldeko lehen bero boladak gure latitudera iristen direnean Kantauri itsasoak behe lainoak sortuz erantzuten dio bi aire masen kontrasteari, eta tenperaturak jaitsarazi lainoaren bitartez. eta tenperaturak jaitsarazi lainoaren bitartez.

Hortik kantauriar isurialdean hain ohikoa den bruma eta laino baxu festa. Egun eguzkitsuak, lainorik gabekoak, garestiak izaten dira ur mugatik iparrera, eta Soratxipi gailurrerako igoera egunean ere bai. Lainoari altxatzeko ahaleginean sumatzen zaio maiatzeko eguzkiaren eraginez Lekunberritik hegora, Nafarroan. Irurtzunen, Sakanako ekialdeko atean aldatzen da panorama normalean, baina Soratxipi Irurtzun baino iparrerago dago, Malerreka eta Basaburua bailaren artean. Lainoak besarkatzen du 1.000 metroko langa gutxigatik gainditzen duen mendilerroa, eta mendizalea tontor hauek eskaintzen duten bista onarekin gozatzeko aukera izanen duen jakin gabe abiatzen da Gorostieta lepotik.

Gorostieta Malerreka eta Basaburua banatzen dituen lepoa da, Saldias eta Orokieta herrien artean. 829 metrora dago, eta zikloturista andana erakartzen du asteburuetan, oso errepide lasaia delako. Errepide ertzean halako atsedeen gunea dago, baita mapa osatu bat ere, bertan egin daitezkeen



Erreportajea irekitzen duten orrietan, Soratxipi inguruko pago baso aberatsak. 1.000 metroko garaieraraino hedatzen dira. Bidea erraza da, samurra, eta GR-12 mendi xendan barrena egiten da ia beti. Tarteka, eta mendi lepoetan, basoa ireki egiten da, aurreko orriko eskuin aldean ikus daitekeen bezala. Orri honetan, goian, mendizaleak Soratxipi gailurrean, lainopean oraindik, eta alboan, Malerreka bailarako mendira daraman belaze leuna.



txangoak azalduz. Gorostieta GR-12 mendi-bide ezaguneko geltokia da, eta badira hainbat mendi talde, Euskal Herrian, xenda hori etapaka osatzen dutenak. Gipuzkoan hasten da, Etzegaraten, eta Belaguako aterpean bukatu. Ur mugan barrena egiten du bidea nagusiki.

Gorostietatik abiatuta, erraza da Soratxipi bitarteko ibilaldia. Ordu eta erdian iristeko modukoa. Desnibela ere oso apala da, 300 metro eskas. Hezea dago zorua, zuhaiztia, leku euritsua baita hau. Pagoak sendo, indartsu daude eguzkiaren lehen izpi goxoak jasota, hostoz aberats. Larremar parajea gaude, eta bideak altuera galtzen du ondoren, ehiztari etxola bat eta urmael txiki bat dauden leporaino. Handik GR-12 xenda eskuinera utzi eta Eragorri mendira igo gaitezke, aise, 1.000 metroko langa gainditzeko. Urrunean azalduko zaigu Soratxipi bera, gero eta garbiago, baina lainoen besarkadatik libratu ezinik.

BELAZE DOTOREA Basoa bera 1.000 metroko langa baino beherago errenditzen da. Belaze aberatsek hartzen diote lekukoa, eta plazer da batere harririk ez duten mendi soil bezain goxo hauek igotzea. Aziendako lehen abereak libre dabilta bazkan, gure inguruan. Eta mendizaleak ere bai. Batzuk Beintza-Labaien eta Urrotz aldetik igo dira, Malerreka aldetik. Besteak, Leurtzako urtegitik. Ikusten saiatu gara, baina ezin, lainoa gurekin jolasean baitabil. Gailurretik Mendaurre, Auza, Saioa eta beste ikusten dira, egun argietan, baina guk horiek guztiak ikusi gabe ekin behar izan diogu itzulerako bideari, autoraino.

Eta oharkabea, atzera begiratu dugun une batean, Soratxipi bere osotasunean azaldu zaigu, baita Mendaurre bera ere, bere ermita ezagunarekin. Eguzkia laino sare itxia zulatzen hasi da, eta lainoek amore eman behar izan dute maiatzeko eguzki indartsuaren aurrean. Orduan hartu dute paraje hauetako basoek benetako dimentsioa gure begientzat, eta ikaragarria da ze baso puska dauden eskualde hartan. Gorostietara bueltan dozenaka zikloturista pasatu dira gure aurretik, eta jakin dugu Irurtzunen hasi eta bukatzen den La Peluso proba zikloturistan parte hartzen ari direla. Miguel Indurain omen da parte hartzaileen artean, probako irteeran antolatzaileen omenaldia jaso ondoren. 1.400 lagunek parte hartu dute proba zikloturista horretan.

Ez da azken ezustekoa izan, ur mugatik hegora, Ultzama bailarara bidean, Orokitako batailaren ospakizun betean baitira izen bereko herrixkan. Karlisten eta liberalen arteko borroka odoltsua bizi izan zen bertan 1872ko maiatzaren 3an, orain dela 150 urte zehatz, eta liberalek karlistak menderatu zituzten. “Orokietako hondamendia” ere esaten diote bataila ezagun horri, eta Gurutze Gorriak bere historian lehen aldiz parte hartu zuen, zaurituak laguntzen, sortu eta urte gutxira. 150 figurantek parte hartu zuten bataila hartako gertakizunak gogoratzen.

Basaburua bailarako errepide nagusira bueltan, eta Ultzama aldera, eguzkia jaun eta jabe da, eta Auza herri inguruan harro agertu dira iparrera Gartzaga, Saioa eta Xuriain mendiak, lainoetatik aske. Ordu pare bat goizegi igo gara mendira, eta bista oparorik gabe geratu, baina Ultzama bailara hain eder ikustea ere txarra ez, txangoari bukaera emateko.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Soratxipi mendia Malerreka eskualdean dago. 1.081 metroko garaiera du. Beintza-Labaien eta Urrotz herrietatik igo daiteke, baina baita Gorostieta lepotik, Saldias eta Orokietako herriak lotzen dituen mendatetik.

NOLA IRITSI

Gorostietako lepora Saldiasetik irits daiteke, Malerrekatik, edota Ultzama edo Basaburua bailaretatik, Iruñetik hurbilduz gero. Saldias Doneztebe eta Leitza arteko errepidean dago; Basaburua eta Ultzama.

EZAUGARRIAK

Mendi-gain leun eta belartsua da Soratxipi, 1.000 metroraingo pago baso aberatsez inguratua. Ondoko mendi gehienak apalagoak dira, eta egun argietan ikuspegi ikusgarria dauka Mendaurre edo Saioa mendi aldera.



BERAT ETA GJIROKASTËR

Albaniako harribitxiak





**Erreportajea irekitzen,
Berateko etxe
mailakatu ezagunak.
Eta lerroon gainean eta
ezkerraldean, harrizko
kalea eta taberna
bateko terraza. Bai
Beraten bai
Gjirokastër-en, giro
atsegina sortzen da,
batez ere gauez,
terrazetan, lagunak
elkartzen baitira sarri.**



Europako herrialderik ezezagunetariko bat izan da Albania, baina gaur egun modan dago. Kostalde ederragatik, mendi garaiengatik, barnealdeko herri txikien xarmagatik... Gero eta atzerritar gehiago bertaratzen dira. Atseгина eta merkea izanik, Grezia bizilagunaren erreleboa hartu nahi du. Eta, seguru asko, Berat eta Gjirokaster harribitxiek badute zerikusirik.

Testua: **Ura ITURRALDE** Argazkiak: **U.I. eta Getty**

Berat eta Gjirokastër. Albaniako harribitxiak. Atseginak biak. Abegikorrak. Lasaiak eta erakargarriak. Historiaz blai. Interesgarriak. Gizateriaren Ondare ere bai. Gu ere han izan gara, jakin-minez. Lehenbizi, Beraten, eta, ondoren, Gjirokastër-en. Berat nahitaezko geldialdia da Albaniara iristen diren bisitarientzat. “Mila leihoen herri” izenez ezaguna da komunismo garaitik. Oraindik ere otomandar arkitektura sumatuko du alde zaharreko etxe eta kale artean galtzen den bisitariak eta herriaren iragan aberatsean barneratuko da, kasik konturatu gabe. Izan ere, turkiarrek bostehun urtez okupatu zuten Berat. Eta, egun, guneko historikoa osatzen duten eraikinak hiru auzo nagusitan banatuta daude, mendian itsatsitako eskailerak balira bezala: Gorica, Mangalem eta Kala.

GORICA Osum ibaiaren eskuineko aldean, Mangalem auzoaren isla balitz bezala, Gorica auzo ortodoxoa dago. Jatetxe eta ostatu ugari topatzeaz gain, XIX. mendean eraikitako San Teodori eliza bisitatzeko aukera izango dugu. Interesgarriena, ordea, bertakoak nola bizi diren ikustea da, haiek beti baitaude prest euren etxeak parez pare ireki eta gerturatzen diren turistekin hizketaldi luze eta lasaia izateko, nahiz eta elkar ulertu ezin.





Gazteluak, goterlekuak, dorreak, elizak eta zubi enblematikoak nonahi aurki daitezke, baina Albaniak bisita berezia sartzen du gida turistikoetan: ustez II. Mundu Gerran eraitsitako hegazkin estatubatuarra.

Parean dagoen Magalem auzora hurbildu nahi duenak Osum ibaia zeharkatu beharko du, horretarako zubi berria erabiliz. Egia esan, egunez zubia ez da polita, baina gauez, aldiz, ederra dirudi, beti urdin koloreko argiekin apainduta.

MAGALEM Magalem Berateko auzo musulmana da. Gorica baino zertxobait handiagoa da eta hiru meskita ditu kale aldapatsu eta estuen artean ezkutatuta. Horietariko bat Sultanaren Meskita da, Albaniako zaharreneetakoa, XVI. mendean eraikitakoa. Dena dela, hiriko meskitarik garrantzitsuena “Berunezko meskita” da, auzoaren behealdean, errepidean, dagoena. Kupulek berunezko estaldurak dituztelako esaten diote horrela. Ibaia alde honetan ere nonahi aurki daitezke jatetxe, taberna eta hotelak.

KALA (GAZTELUA) Magalem auzoaren goialdean, Kala izeneko hirugarren guneko historikoan, alegia, Berateko gaztelua dago. Izugarrizko malda igo behar bada ere, bisitatzea benetan merezi du. Bi bide daude gotorlekura iristeko. Lehenengoa Magalem auzoko kale txiki batetik abiatzen da eta bi-



garrena, berriz, errepide nagusitik. Bien artean, alabaina, desberdintasun bat dago: lehen aukera hautatzen dutenek ez dute ordaindu beharko gaztelura sartzeko; bigarren bidetik joaten direnek, aldiz, ordaindu egin beharko dute, ibilbidea sarbide nagusiaren parean amaitzen baita.

Erromatarren garaian erdi suntsitua izan zen arren, gaztelua behin eta berriz berreraikia izan zen. Gotorlekuaren barneko biztanleria kristaua zen eta hogeit hamar inguru eraiki zituzten XII. mendean. Mesquita bat ere bazuten, turkiarrek erabili ohi zutena. Gaur egun, ordea, eliza gutxi batzuk eta mesquita zenaren hondakinak besterik ez dira gelditzen. Eta, gainera, souvenir denda, jatetxe eta etxebizitzaz inguratuta daude. Aipagarria da, halaber, Berateko gazteluaren irudia 1996an egindako hamar lek-eko txanponaren atzealdean agertzen dela. Kurioso.

Hirigune historikoan han-hemenka ibili ondoren, gomendagarria da hiriko zati berria ere ezagutzea. Bertan dago Bulevardi Republika kalea, alde zaharretik metro gutxi batzuetara.

Aipagarria da iluntze aldera sortzen den giroa. Terraza politak daude, bai afaltzeko bai zerbait hartzeko edo pikatzeko. Adin guztietako herritarrak hurbiltzen dira. Izan ere, terrazetan lagunekin berriketan egotea zaletasun bilakatu da albaniarrentzat; batez ere gizonezkoentzat, apenas ikusten baita emakumerik jardun horretan. Errazago ikusten dira pasieran, terrazetan eserita baino. Saltzaile ibiltariak ere hara-hona dabilta etengabe kaleetan, artaburu erreak eta bestelako mokaduak merke eskaintzen.

BERATETIK GJIROKASTËR-ERA Berat utzi eta Gjirokastrë-era goaz. Albaniako herririk ikusgarriena. Denda koloretsuz eta xarma benetan berezia duten jatetxez jositako bazar zaharreko kaleetan barrena pasieran ibiltzea nahikoa da, bertan egun batzuk igaro nahi izateko; akaso, pentsatu baino egun batzuk gehiago. Hiri honetan jaio zen Enver Hoxha buruzagi komunist albaniarra eta, nonbait, horixe da, hain zuzen ere, otomandar garaiko eraikuntzak gaur egun «horren ongi» egotearen arrazoia. Horrexegatik bihurtu omen da Gjirokastrë museo-hiri.

Postal itxura duen gune historikoa ezagutzeko ordu batzuk besterik ez dira behar, oso txikia delako tamainaz baina, seguruena, bidaiaria bertako giro lasai eta atseginez maiteminduko da berehala. Eta, halaber, aise konturatuko da alde zaharreko eraikin guztiek oinarritzko diseinu komuna dutela. Denak dira antzekoak egitura aldetik: neguan bizitzeko erabili ohi zen solairu bat behean; egurrezko balkoiak goiko aldean, udan gozatu ahal izateko; teilatuak, berriz, arbelezkoak; eta eraikina harritzkoa, galtzada-harritzko kaleen antzera. Horrexegatik da Gjirokastrë «Harrien hiria».

GAZTELUA Berate bezala, Gjirokastrë-ek ere gaztelu eder bat dauka, garai batean herria erasoetatik babesten zuena. Bazarretik irten eta ezkerreko errepide aldapatsua jarraitu behar da sarrerara iristeko. Sarrerak 200 lek (1,60 euro) inguru balio du.

Gaur egun, Erdi Aroko gotorlekuaren aztarnak baino gelditzen ez diren arren, hiriaren eta mendien ikuspeirik ederrenak eskaintzen ditu. Gai-

nera, Balkanetako penintsulako bigarren gaztelurik handiena da. Turista asko harrituta gelditzen dira bertan hegazkin estatubatuar bat ikustean eta, jakin-minez galdera egiten dutenean honako erantzuna jasotzen dute: II. Mundu Gerran eraitsia izan zen. Dena dela, aparatuak askoz ere modernoagoa dirudi eta erori izanaren arrastorik ez da inon agertzen. Gobernu komunistaren bertsio ofizialaren arabera, Albanian lurreratu zen 1961ean, seguruenik gerra hotzean espioitza lanak egiten ari zela jakin ondoren. Sinetsi eta hegazkinari argazkiak ateratzea besterik ez zaie geratzen bisitariei.

Gazteluko barnealdeko bisita egin bitartean, II. Mundu Gerrako artilleriako arma bilduma ere ikus daiteke, ia ilunpetan dagoen galeria antzeko batean. Ibilbidearen bukaeran dago Armen Museoa. Ikus daiteke, bai, baina aparteko sarrera ordaindu ondoren. Gazteluaren iparraldeko aldea, berriz, kartzela izan zen Zog erregearen garaian; preso politikoak giltzapetuta izan zituen erregimen komunistaren garaian.

Behin galeriatik irten ondoren, lorategi batera helduko gara eta parez pare erlojuaren dorrea izango dugu eta, inguruan, ikerketa batzuen arabera, bizantziar garaikoa izan zitekeen eliza zahar baten hondakinak eta plaza handi bat, non gaur egun Folklore Jaialdi Nazionala egiten den. Zalantzarik gabe, Gjirokastërreko gaztelua Beratekoa baino askoz ere hobeto zainduta dago.

BABESLEKU ANTIAEREOA Enver Hoxhak beti pentsatu izan zuen Mendebaldeko potentziek Albaniari eraso egingo ziotela eta, horregatik, bere herrialdea babestearren, 700.000 bunker inguru eraiki zituen. Inbasioa, ordea, ez zen sekula gertatu eta bunkerrak museo bilakatu zituzten.

Horien artean garrantzitsuenetakoa da Gjirokastërreko gazteluarean azpian dagoena. Gutxi gorabehera, 1.500 metroko azalera du. Barrualdean, hainbat funtziotarako gelak ikus daitezke; babestuenak, agian, bilerak egiteko buruzagiek eraikitakoak. Galdeketak egiteko, edo lotarako baliatu zituztenak askoz ere xumeagoak dira. 1960ko hamarkadan eraiki zuten eta guztira 80 gela ditu. Bertakoek ez zuten haren berri izan 1990eko hamarkadara arte.

MUSEO ETNOGRAFIKOA: ENVER HOXHA-REN ETXEA Egun Museo Etnografikoa dena Enver Hoxha buruzagi komunistaren bizilekua izan zen. Berez, eraikina otomandar estiloko etxe tipikoaren berreraikuntza bat baino ez da, zeinean etxeko tresnak, apaingarriak eta jantzi tradizionalak ikus daitezkeen.

Zekate eta Skëndull ere eraikin interesgarriak dira. Ez daude museotik oso urruti. Lehenengoak, hiru solairu, arku bikoitzeko fatxada eta dorre bikiak ditu. Bigarrena, berriz, XVIII. mendekoa, etxe otomandar klasikoa da.

Bazarra, berez, XVIII. mendekoa da, baina, XIX.ean berreraiki behar izan zuten, sute baten ondorioz. Gaur egun sekulako bizia du, egunez zein gauez, baina batez ere argiak pizten direnean, koloretako bonbila txikiz apainduta.

**Iuntze aldera giro
polita sortzen da.
Terraza politik
daude eta adin
guztietako
herritarrak
hurbiltzen dira.
Izan ere, terrazetan
lagunekin
berriketan egotea
zaletasun bilakatu
da albaniarrentzat**

PHOTOMUSEUM

Argazki & zinemaren historiaren topaleku



Testua eta Argazkiak: **Ane Iparragirre**

Argazkigintzaren historia azaltzen du hiru gidalerrotan oinarrituz: lehena, argazkigintzaren garapen teknikoa; bigarrena, irudi fotografikoek komunikatzeko tresnatzat duten balioa eta, azkenik, argazkigintza arte alorrean. Argazki & zinemaren topaleku bilakatu da Zarauzko Photomuseum.



Ramon Serras eta Leopoldo Zugaza izan ziren, zalan-tzarik gabe, Zarauzko Photomuseum-eko sorreraren protagonista nagusiak, aparailu eta irudi fotografikoez osatutako euren bildumak izan baitzituen oinarri egitasmoak. Harrezkero, izugarri handitu eta aberastu da hastapenetako bilduma hura. Argazki & Zinema Museoa du izena eta 1993ko irailean zabaltzen lehen aldiz ateak Villa Manuela eraikinean: urte batzuk geroago eraberritu zen eraikina eta oso-osorik Photomuseum-aren egoitza bihurtu zen. Helburua argi zuten, hasiera-hasieratik: arte eta teknika fotografikoaren zein zinemagintzaren hastapenak ikertzea eta, batez ere, hedatzea eta jendarteari erakustea. Eta horixe izan dute xede harrezkero.

ERAKUSKETA IRAUNKORRA Beraz, Beraz, Photomuseum-ean sartzen denak argazkigintza eta zinemagintzaren historian egingo du bidaia; batez ere, museoak eskaintzen duen erakusketa iraunkorrari esker. Museoko arduradunen aholkuari jarraituz, bisitaren abiapuntu gisa laugarren solairua aukeratzen duena “Aurreargazkigintza eta irudia mugimenduan” barrena sartuko da: ekialdeko eta mendebaldeko itzalak, itzal ezkutatuak, itzalen antzokiak, miniaturazko kaxa optikoak, polioramak, irudi anamorfikoak, kaleidoskopioak, litofaniak, jostailu optikoak, taumatropoak, zootropoak, linterna magikoak...

Hirugarren solairuan, berriz, honako etapa hau ezagutu ahal izango du bisitariak: “Argazkigintzaren teknika, dagerrotipotik argazkigintza digitalera”. Beraz, argazkigintzaren teknikaren bilakaeraren berri izango du, kamera eta tresna fotografikoei esker, dagerrotipoetatik hasi eta argazki digitaletaraino (kamera iluna, grabatu kalkografikoak, litografiak, dagerro-



Lau solairutan banatutako ibilbidean, argazkigintza gustuko dutenek asko gozatuko dute Villa Manuelako korridore artean eta aukera paregabea izango dute, batetik, iraganeko hamaika aparailu, argazki eta teknikak gertutik ezagutzeko eta, bestetik, argazkigintzaren etorkizuna irudikatzeko.





tipoak, anbrotipoak, albuminak, gelatino bromuroa, bromoleoak, fotogramak, argazkigintza estenopeikoa, argazki-handitzea, bat bateko argazkiak eta kolorea..). Tresnak ikusteaz gain, zenbait teknika eta arte-mugimendu gertutik ezagutzeko aukera ere izango du, zenbait argazkilari aparten lanen bidez.

GENEROAK, ESTILOAK, TEKNIKAK... Jarraian, bigarren solairuak argazki-generoak jorratzen ditu. Hau da, argazkigintzaren gaiak eta estiloak: erretratua, biluzia, paisaia, bodegoia, argazkigintza antropologikoa, argazkigintza eta arte plastikoaren arteko paralelismoa (land-art, surrealismoa, arte kontzeptuala, abstrakzioa) eta argazkigintza artistikoak (collage eta fotomuntaiak).

Dena dela, aldi baterako erakusketa-programa zabala eta kultur eta hezkuntza jarduera ugari antolatzen ditu museoak urte osoan: proiektzioak, hitzaldiak, ikastaroak, liburu-aurkezpenak... Besteak beste, urteroko Argazki Bilera. Horrez gain, liburutegia eta hemeroteka espezializatua, liburu-denda eta pedagogia-zerbitzua ere baditu Photomuseum-ek.

Izan ere, erakusketa horien bidez argazkigintzaren inguruko hamaika genero, teknika eta joera artistiko jorratu ditu museoak; hamaika ikuspuntu, egile ezagun zein hasiberrien eskutik.

Zalantzarik gabe, argazkigintza gustuko dutenek asko gozatuko dute Villa Manuelako korridore artean eta aukera paregabea izango dute, batetik, iraganeko hamaika aparailu, argazki eta teknikak gertutik ezagutzeko eta, bestetik, argazkigintzaren etorkizuna irudikatze.



“Surfing Euskadi”, olatu gainekeo historia

MAIATZAK 11-URRIAK 30

Bilboko Itsasmuseumek surfaren inguruko erakusketa izango du zabalik urriaren bukaera arte. “Surfing Euskadi” titulupean, 60ko hamarkadaz geroztik Euskal Herriko kostaldean surfak izandako bilakaera eta historia azaltzen ditu.

Propio prestatutako zirkuituan bederatzi atal bereiz daitezke: historia, surfari lotutako pertsona ospetsuak, olatu nabarmenenak, tokiko industriaren garapena, surf inklusiboa, artea, hedabide espezializatuak, zerbitzuak eta puntako teknologia.

Zirkuituaren hasieran ikusleak argazkiak izango ditu aurrez aurre, tartean euskal kostaldeko olaturik ikusga-

rrienenak. Ondoan, 60ko hamarkadan surfean emandako lehen pausuen berri izango du, ordena kronologikoan. Jarraian, EAEko surf munduan esanguratsuak diren kirolari, langile, eragile eta bestelakoen erretratuak jarri dituzte, baita Euskal Herriko kostaldeko mapa margotu bat ere, zeinean surfean egiteko hondartzarik egokienak adierazten diren. Hainbat aldizkari, kartel eta iragarki ere topatuko ditu bisitariak, 80ko hamarkadan argitaratutako binilo baten ondoan. Industriaren txokoa, bestalde, EAEko neopreno eta ohol fabrikatzaile nagusien berri izango du.

Erakusketa 23 surf oholek osatzen dute; horietako asko, aitzindariak EAEko surfaren historian. Bertako taula zaharrena 1970ean Patxi Olidenek Orion fabrikatutako egurrezko ohola da.

XVIII. mendeko patatxaren erreplika, kostaldean

MAIATZA-IRAILA

Albaolan egin duten Juanita Larando XVIII. mendeko patatxaren erreplikak itsas zeharkaldi kulturala abiatuko du Pasaian eta Bizkai, Gipuzkoa eta Lapurdiko hogeitaherri baino gehiago bisitatu ondoren, irailean lehorreratuko da Donibane Lohizunen. Elkano Itsas Herria egitasmoaren barnean antolatutako ekitaldia da zeharkaldia.



JENDE GEHIENAK EZAGUTZEN EZ DITUEN HOGEITA BOST UR-SALTO, LIBURU BATEAN

Naturak eskaintzen dizkigun ikuskizunen artean li-lura aparta darie ura nagusi dutenei. Paisaia horietatik bat dago bereziki pizgarria: ur-jauziak.

Liburu honetako egileek jende gehienak ezagutzen ez dituen hogeita bost ur-salto aukeratu dituzte. Euskal Herriko herrialde guztietako ur-jauzi ederrak dira eta, gainera, haiek bertatik bertara ikusi nahi duenak txango zoragarriak egin beharko ditu.

Eraitza irudi ikusgarri eta testu mamitsuz betetako liburu eder hau da.

Rutas a cascadas recónditas

Paulo Etxeberria, Begoña Fernández Díaz, Alberto Muro

Sua edizioak, 2022
Euskal Herria Liburuak
150 orrialde
Gaztelania



Gorbeia inguruko zaldien erakustaldia

EKAINAK 26

Dena ongi bidean, ekainaren 26an Zaldiaren Azokaren XXV. edizioa egingo da Ondategin. Urtero bezala, Zigoitiko Udalak antolatuta, Gorbeia inguruko zaldien erakustaldiak ehunka ikusle bilduko ditu, bai bertakoak bai kanpotik etorritakoak ere.

Behi, zaldi, ardi eta ahuntz aziendaren erakusketa ere ez da faltako, ezta artisautza eta nekazaritza produktuak ere.



Kruger Shalati

Zubitik zintzilikatutako tren-hotela

Testua: **Eli TXAPARTEGI** Argazkiak: **Michele SPATARI** (AFP)

Kruger Shalati hotela berezia da oso. Batetik, zubi batean zintzilikatuta dagoelako eta, bestetik, luxuzko gela bihurtutako trenbide-bagoietan egiten dutelako lo bezeroek. Hegoafrikako ipar-ekialdean, Kruger parkera begira lokartzen dira eta sekula ikusi ez dituzten animalia basatiak sentitzen dituzte inguruan, hurbil. Sentitu eta ikusi ere bai.



Kruger Parke Nazionalean, Hegoafrikako basabizitza-erreserbarik handiengan, luxuzko tren bat dago zubi batean esekita, 15 metrora. Bidaia-erakundeak hartzen ditu, baina ez da mugitzen. Kruger Shalati boutique-hotela da, "Zubiko Trena" izenez ezaguna. Bertan ostatu hartzeko aukera dutenek urrezko begiratokia dute, ohetik bertatik egunez zein gauez natura basatiaz gozatu ahal izateko.


Zubiari erantsitako plataforma txiki batean igerileku biribil txikia dago. Bertan, zenbait bezerok solasaldia eta tragoak partekatzen dituzte, uda amaierako brisa atseginak lastanduta.

Bat-batean, garrasi ozen batek txorien kankak geldiarazi ditu. «Hipopotamo bat da», dio berehala zerbitzari batek, gonbidatuak barandara hurbildu eta makurtzen diren bitartean, adi-adi eta jakin-minez, Sabie ibai lohitsu animalia ikusteko itxaropena galdu gabe. Harritu egiten dira ur azalean sumatzen dituzten bi belarri biribil ikustean. «Benetan maitagarria!», xuxurlatu du Karen Lanek. Johannesburgokoa da eta senarrarekin dago hotelean, ezkontuta 30 urte daramatzatela ospatzeko.

«Esperientzia ahaztezina da», gehitu du Chichi Mudau merkatariak. Arrantzale-kapela du buruan, baina ez edonolakoa, Gucci baizik. «Ez lekuak, ez zerbitzuek, ez dute akatsik. Egia bihurtutako ametsa da. Egia esan, dena dut gustuko».

Handik gutxira, horietako batzuk kamioietan sartu eta safari antolatu batean hartuko dute parte. Ziurrenik, beren habitat naturalean inoiz ikusi ez dituzten animalien gizona hurbilduko dira: jirafak, elefanteak, zebrak, lehoiak, errinozeroak, lehoi-abarrak, bufaloak... Handik pare bat ordura, denak gustura itzuli dira, txangoan ikusitakoa ahalik eta ongien deskribatu nahian.

Paisaia basatian esekitako zubia, Selati zaharra, abandonatuta egon zen hainbat hamarkadatan. Tramite luzeak egin ondoren, 2016an, jabeek trena ostatu dotore bihurtzeko baimena lortu zuten, baina, jakina, ez edonori



zuzenduta, dirudunei baizik. Kokapena ere ondo pentsatu zuten; ez zen edonolako lekua, txoko sinbolikoa baizik, duela urte batzuk oso erreferentziala izan zena.

Hain zuzen ere, joan den mendeko 20ko hamarkadan, parkean sartzeko eta safari batean parte hartzeko trenbidetik igaro behar zen derrigorrez, bide bakarra baitzen bertaratzeko. Azken tren-makina 1979an gelditu zen behin betiko, parkera iristeko konexio-bide berriak ezarri zirenean. Ordura arte, trena zubian gelditzen zen, eta batzuetan, gainera, bidaiariak bagoietan igarotzen zuten gaua. Horrexegatik, tren zaharraren omenaldi gisa, gaur egungo konboia 1920ko hamarkadan lehen aldiz martxan jarri zena-ren antzekoa da.

TREN-HILERRIAN, BILA «Tren-hilerri batera joan ginen bagoiak aurkitu eta erosi nahian», gogoratu du hoteleko kudeatzaile exekutibo Gavin Ferreira. «Nahiko hondatuta zeuden. Batzuk, arpilatuta. Alabaina, 1950eko hamarkadako hegoafrikar bagoi haiek zaharberritu eta luxuzko gela bihurtu genituen eta, egun, «denboran bidaiatzera» gonbidatzen dituzte bidaiariak. Azalpenak ematen dituen bitartean, aurrera doa Ferreira, bagoien korridorean barrena. Zenbakituta daude, 25era arte. Baina, bitxia bada ere, ez dira 25 gela, Kruger Shalati ere 13 zenbakia saihestu egin nahi izan duelako, herritarren antzinako sineskeria kontuan hartuz.

Bagoi bat, gela bat da. Kutsu afrikarra nabaria da. Oheak handiak dira eta burkoak, bigunak. Giroa magikoa da itxuraz. Eguzkiaren argia leunki ira-



Hamabost metrora zintzilik dago Kruger Shalati hotela. Zaharberritutako tren bagoietan ostatu hartzeko aukera dutenek urrezko begiratokia dute, egunez zein gauez, natura basatiaz gozatu ahal izateko.

gazten da leihoeetatik eta bainuontzia laztantzen du. Zetazko txabusina gertu dago, zintzilik. Balkoiak kanpora ateratzera gonbidatzen du, baina langileetako batek ohartarazi du: «Ez ahaztu atea ixtea. Tximinoak hemen nahiko oldarkor bihur daitezke eta bezeroei eraso egin diezaiekete. Primate gris txikiak zubira igotzen direnean, kristaletatik ohean dauden gonbidatuei so gelditzen dira, jakin-minez. Politak dira, baina adi egon!»

Hasieran, Kruger Shalatik mendebaldeko bezeroak bakarrik hartzea aurreikusi zuen. Aitzitik, 2020ko abenduan inauguratu zenean, pandemiaren eraginen ondorioz, hegoafrikarrek egin zituzten lehen erreserbak. Onartu ere onartu zituzten. «Lehen hilabeteetan, hotela beteta egon zen», azaldu du erreserba arduradun Ella Westek, zeinak aitortu duenez, «nazioarteko bezeroak ere behar ditugu, horrelako leku batek behar bezala funtziona dezan». Hala ere, nabaritu du pixkanaka-pixkanaka egoera hobetuz doala. Gainera, orain trenak estatubatuar gehiago erakartzen ditu, lau kilometrora dagoen lurreratze pista berri batek bidaia erraztu dielako.

Iritsi da gaua eta trena kulunkatzen ari da. Bezeroak ere bai. Hala ere, ez dago alarma pizteko inolako arrazoirik. «Mugimendu naturala da», azaldu du Ferreirak. «Zubiaren zabaltze eta uzkuertzearen ondorioa da». Eguneko beroak metalaren dilatazioa eragiten du, eta gaueko freskotasunak, berriz, uzkuertzea. Eta, dirudienez, gonbidatuek eskertu egiten dute kulunka sotila. «Gure bezeroek –aitortu du, harro, Ferreirak– zoriondu egiten gaituzte, mugitzen ari den tren bat gogorarazten dielako». Sentsazioa atsegina omen da.



PHOTO 2022, AUSTRALIAKO ARGAZKILARITZA BIURTEKOA

PHOTO 2022 nazioarteko argazkilaritza biurtekoa egin da berriki Melbournen. Jaialdiaren gaiari esker –“Gizakia”–, jendarteko zenbait esparru jorra dezakete artistek: hilkortasuna, “ni”a, natura, bizitza, historia... Madeline Bishop izan da topaketetan parte hartu duen argazkilarietako bat, zeinaren erretratu erraldoiak Melbourneko espazio publikoetan izan diren ikusgai.

Australiako argazkilaritza-hitzordu nagusia da PHOTO 2022. Bertako zein nazioarteko 123 argazkilariren lanak erakutsi ditu, hirian barreiatutako 90 erakusketen bidez. Aurten, honako artista hauen lanak izan dira ikusgai, besteak beste: Gillian Wearing, Paul Mpagi Sepuya, Mohamed Bourouissa, Poulomi Basu, Vasantha Yoganathan, Aziz Hazara, Martine Gutierrez, Massimo Vitali, Florian Hetz, Philip Montgomery, Luo Yang, Atong Atem, Naomi Hobson, Dean Cross, Ying Ang, Hannah Brontë, Scotty So, Madeline Bishop, Anu Kumar eta Patrick Pound. WILLIAM WEST



HEPBURNEN ESTATUA

Kees Verkade artista holandarrak egindako brontzezko estatua berria dago ikusgai Bruselan: zehazki, Audrey Hepburn-ena. Aktoresaren semeak eskaini dio arte-lana hiriari, haren omenez Belgikako hiriburuan inauguratutako plazan eta lorategian jar dezaten. Izan ere, maiatzaren 4an betetzen “Mi Bella Dama”ren jaiotzaren urtebetetzea. Aurten 93 urte beteko zituen. Kenzo TRIBOUILLARD



“MACHU PICCHU ETA PERUKO ALT XORRAK”, PARISEN IKUSGAI

Pariseko Chaillot Jauregian, “Machu Picchu eta Peruko altxorrak” erakusketa dago ikusgai, Peruko zibilizazio zaharren historia, 3.000 urtekoa, 200 objekturen bidez errebasatzen duena: urrezko apaingarriak, kobrezko hileta-maskarak, porfirio beltzezko arete handiak... eta, jakina, Machu Picchuren inguruko hamaika sekretu interesgarri. **BERTRAND GUAY**



LURREKO KURBADURA BEHATZEKO

Space Perspective enpresak Neptune espazio-ontziaren kapsulak aurkeztu ditu Floridako Kennedy espazio gunean. Bezeroek Lurreko kurbaduraren ikuspegiaz gozatu ahal izango dute luxuzko kabinetatik, globo erraldoietan goiko atmosferara igo ondoren. **AFPSpace Perspective**

ZIKOINA ZURIAK, PORTUGALEN

Zikoina zuriak Portugaleko hegoaldeko kostaldeko paisaiaren parte bilakatu dira. Monchique mendilerroa leku egokia da birdwatching-zaleentzat baina baita mendizaleentzat ere; izan ere, mila metrotik goragoko tontorrik ez dagoen arren, Algarveko sekulako panoramikak ditu. Gainera, ezagunak dira oso bertako ur termalak.

GABRIEL BOUYS






MAIP MACROTORAX, MEGARRAPTORIK HANDIENA

Zenbait argentinarrak paleontologok iragarri dute duela zenbait hilabete dinosauro harrapari bat deskubritu zutela Argentinako hegoaldean, orain arte aurkitutako megarraptorik handiena. Maip macrotorax du izena eta duela 70 milioi urte bizi izan zen. Bederatzi eta hamar metro arteko luzera omen zuen, sei tonako pisua, eta 40 zentimetroko atzapar zorrotz eta konkortuak.

Familia bereko dinosauroen fosilen erreplikak –besteak beste, Megarraptor namunhuaiquii delakoarena– Buenos Airesko Bernardino Rivadavia Natur Zientzien Museoan daude ikusgai. Eta ikertzaileek aurreikusi dute aurkitutako azkenarena ere bertan izango dela laborategiko lanak amaitu bezain pronto. JUAN MABROMATA



MURAKAMI: “AN ARROW THROUGH HISTORY”

Orain arte inoiz erakutsi ez diren Takashi Murakamiren artelanak bildu ditu New Yorkeko Gagosian Galeriak “An Arrow Through History” izeneko erakusketan. Historian gezi batek bezala, artista japoniarrak artearen mundu materiala zeharkatzen du, azkenean NFTen unibertsoa iristeko eta bere «Clone X»a aurkezteko; alegia, bere buruaren abatarra.

Artistak 2014tik egin duen lehen erakusketa da. Laster Los Angelesen ere izango da. TIMOTHY A. CLARY



TXORIMALOEN AZOKA

Castellar herriak, Italiako iparraldean, Txorimaloen Azoka egin du berriz ere, herritarren originaltasun gaitasuna agerian utziz. Urteroko azokan, herriko lorategiak, patioak, leihoak, zelaia eta kaleak txorimaloz betetzen dira, bertakoen zein bisitarien arreta erakarritik. Tradizionalak zein abangoardistak, txikiak zein handiak, panpin guztiak eskuz eginda daude. Eta denak dira sinpatikoak. Hegazti despistaturen bat bakarrik izutu daiteke irribarreia eragiten duten txorimaloekin. MARCO BERTORELLO



HEGAZKIN ZAHAR TURISTIKOAK

Boli Kostako enpresaburu batek Abiyango aireportuan abandonatutako hegazkinak bildu ditu zenbait urtez eta, orain, bere pasioa erakarren turistiko bihurtu nahi du Songon Dagben, Jacquerville eskualdean. Antzira lasai batetik gertu, zortzi hegazkin lerrokatu ditu 800 metroko lurreratze-pistan.

Helburua du hitzaldi-areto, jatetxe eta luxuzko logelak eraiki eta turistei eskaintzea! (Siia KAMBOU)



MAIEN TRENA, MEXIKOKO QUINTANA ROO ESTATUAN

Hasiera-hasieratik, polemika ugari sortzen ari da, Mexikoko Quintana Roo estatuan, Tulum eta Playa del Carmen artean aurreikusitako Maien Trenaren proiektu erraldoiaren inguruan. Mexikoko epaile batek trenbidearen zati baten obrak geldiarazi ditu, ingurumen-inpaktuaren azterketarik ez dela egin argudiatuta. CARLO ECHEGOYEN



CHARLOTTE BRONTË-REN ESKUIZKRIBU BEREZIA

Enkantean jarri aurretik, New Yorkeko Liburu Zaharren Azokan egon da ikusgai Charlotte Brontëk hamahiru urte zituenean idatzitako "A Book of Rhymes" poema liburuaren miniaturazko eskuizkribua. 1829an idatzia, eskuz josita dago eta argitaratu gabeko hamar poema jasotzen ditu. 1,25 milioi dolarretan saldu zen. Timothy A. CLARY

KANPEZU:

UN LEGADO NATURAL
PARA DESCUBRIR,
DISFRUTAR Y COMPARTIR



C/ Arrabal 97, Santa Cruz de Campezo
Tlfno: 945 21 20 51 / 683 77 61 64 • info@kanpezu.com